

## GIL 12 Igoroingo sakana



Igoroingo arroilaren goiko aldea, Erroitegitik ikusia.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 46' 40,14" N  
Long.: 2° 24' 13,64" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 548.771,03 m  
Y: 4.736.314,43 m



### Nola iritsi

N-1 errepidean, Aguraingo irteera hartu, eta, ondoren, A-2128 errepidea, Opakuako mendaterantz. Mendatea pasatutakoan, segi errepide beretik, A-3114ren bidegurutzeraino. Ondoren, A-3114 errepidean segi Erroitegiraino, arroilaren ikuspegi orokorra izateko.

Musitutik ere joan daiteke arroilara, eta, Musitura, berriz, Maeztutik joaten da, A-3144 errepidea hartuta.

### GILaren deskribapen laburra

Igoroingo sakan edo arroila haitzarte-arroilen Eusko-Kantauriar arroko adibide onena da. Arabako mendialdean dago, oso bakartua; horregatik mantendu da bikain. Nabarmen-tzekoa da, interes geomorfologikoaz gain, floraren aberastasuna.

Geomorfologiaren ikuspegitik, ebaki handi bat da inguruko erliebe leun eta ia horizontalean. Arroila, Igoroin ibaiak urratua, gutxi gorabehera 4 km luze da N80 E norabidean, eta nahiko zabalera konstantea du (600 m), goiko aldean. Iparraldeko isurialdean, 3 ibaiadar txikiago ditu, haiek ere haitzarte-morfologia bereizgarria sortzen dutenak.

Arroilaren goiko aldea 920 m inguruko altueran dago, eta gutxi gorabehera 50 m-ko lodiera duen Paleozenoko kalkarenita-pakete batek mugatua dago; kalkarenitak ondo geruzatuak daude, ia horizontalki kokatuak, eta arroilaren ertzeko pareta bertikalak erazten dira haietan. Arroilak, lehengo malkar bertikalen azpian, V sakon baten itxura hartzen du Paleozenoko material dolomitiko bigunagoetan, harik eta Igoroin ibaiaren ibilgura iritsi arte, haitzartearen ertzetik 120 m behera.

### Behatzeko punturik onena

Erroitegiko herritik, eta arroilaren barrutik ibiliz.

### Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 113, GIL 150.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 46, GIL 47, GIL 75, GIL 82.

### GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					